



Erakunde hornitzaileek eta/edo laguntzaileek aintzat hartu beharreko printzipio etikoak eta jokabidezkoak


Lantegi Batuak erakunde hornitzaileek eta laguntzaileek aintzat hartu beharreko printzipio etikoek eta jokabidezkoek erakunde horiek gurearekin dituzten jokabide- eta harreman-motak ezartzen dituzte, bai zerbitzu edo produktu baten zuzeneko hornitzaileari dagokionez bai hornitzaile izan gabe proiektuetan edo jardueretan erakunde laguntzaile denari dagokionez.

Lantegi Batuak irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta desgaitasuna duten Bizkaiko pertsona guztiei (batez ere adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna dutenei) kalitatezko lan- eta okupazio-aukerak ematen dizkie, beren garapen eta bizi-kalitate gorena, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzeko.

Horretarako, ekimen berritzaileak, iraunkorrak eta lehiakorrak garatzen ditu, erakundeko pertsona guztien gaitasunak indartzeko eta haien bizi-proiektua gauzatzen aurrera egiteko laguntza egokiak emateko.

Lantegi Batuak, bere **misioarekin eta balioekin** bat eginda, bere hornitzaileekiko eta laguntzaileekiko konfiantza- eta lankidetzaren esparrua ezartzeko konpromisoa du, erakundearen **Etika- eta Jokabide-kodearekin** uztartuta. Hori dela eta, Lantegi Batuak erakunde horiengandik espero dituen printzipio etikoak eta jokabidezkoak zein diren jakinarazi nahi du.

Printzipio horiek Lantegi Batuak bere hornitzaileen eskura jartzen dituen **Erosketa Baldintza Orokorrak** direlakoan osagarriak dira.



1.- Jarduketa-konpromisoak eta -printzipioak

Lantegi Batuaken erreferentea **Nazio Batuen Nazioarteko Ituna** da. Erakundearen jarduera Giza Eskubideen, Lanaren, Ingurumenaren eta Kudeaketa etikoaren arloko Nazioarteko Itunaren Oinarrizko Hamar Printzipioen arabera kudeatzeko konpromisoa du.

Lantegi Batuaken kudeaketa **pertsonengan ardaztutako balioetan oinarritzen da**, baita pertsonentzako laguntzan, iraunkortasunean, berrikuntzan, ekintzailetzan eta berdintasunean ere.

Erakundearen helburu iraunkor bat da desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak aitortzeko eta errespetatzeko kulturari buruz sentsibilizatzea eta kultura horren alde egitea. Horregatik, **Lantegi Batuak**ek konpromiso eta printzipio horiek zabaltzen ditu, eta bere erakunde hornitzaileek eta/edo laguntzaileek bere egitea eta betetzea gomendatzen du.

Duintasunarekiko errespetua

Justizia eta inklusioa

Integritatea eta legeekiko errespetua

Konpromisoa bikaintasunarekin eta gardentasunarekin

Ingurumena

Laneko osasuna

Informazioaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna

Datu pertsonalen babesa

Konpromisoa gizarte-enpresekin, hurbiltasunarekin eta euskararekin




Duintasunarekiko errespetua

Lantegi Batuakek bere **erakunde hornitzaileei edo laguntzaileei** zabaldu nahi die eremu honetan duen konpromisoa, onartutako **lege eta jardunbide nagusien** arabera, honako hauek berma daitezzen:

- Nazioarteko tresnetan jasotako **giza eskubideak**, ez direla ekintzaz edo omisioz urratzen ziurtatuta.
- **Pertsonak errespetuz eta duintasunez tratatzea**, aniztasuna eta bakoitzaren indibidualtasuna aitortuta, eta modu aktiboan gaitzetsita pertsona bat bere duintasunaren eta eskubideen aurka erabiltzea ekarriko duen edozein abusu, jazarpen, mespretxu, marjinazio, larderia, hertsapen, engainu, manipulazio eta antzeko jokabide.
- **Haurren lana** eta adingabeen esplotazioa **desagerrarazten** lagundu behar da, enplegatutako pertsona guztiek jardungo den herrialdean ezarritako gutxieneko adinetik gorakoak izan daitezzen eta, gainera, ezein adingabek ez dezan egin lan arriskutsurik edo bere hezkuntzan edo garapen fisiko, mental, moral eta sozialean eragina izango duenik.
- **Elkartzeko, afiliatzeko eta negozioazio kolektiborako eskubideak bermatu** behar dira, betiere kasu bakoitzean aplikatzekoak diren arauei jarraikiz.

Era berean, Lantegi Batuakek **Nazioarteko Ituna ekimenaren printzipioak errespetatzera** animatzen ditu **erakunde hornitzaileak edo laguntzaileak**. Printzipio horiek, funtsean, giza eskubideen babesari, gutxieneko lan-baldintzei, ingurumen-erantzukizunari eta ustelkeria saihesteari buruzkoak dira.


<http://www.unglobalcompact.org> webgunean, Nazioarteko Ituna ekimenari buruzko informazio gehiago eskura daiteke.



Justizia eta inklusioa

Arraza, desgaitasuna, adina, generoa, egoera zibila, sexu-joera, nazionalitatea, gizarte- edo etnia-jatorria, ideologia edo iritzi publikoa, erlijioa, osasun-egoera edo beren ardurapean dauden pertsonen beste edozein egoera pertsonal, fisiko edo sozialean oinarritutako **diskriminazio-jokabide oro saihestuko da** enpleguan eta okupazioan, eta aukera-berdintasuna bultzatuko da. Halaber, Lantegi Batuakek beste erakundeak berdintasun-planak ezartzera animatzen ditu, pertsona guztiei berdintasunezko tratua bermatzeko.

Orobat, aplikatu beharreko legeriaren arabera, **erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek** desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko legezko erreserba errespetatzeko konpromisoa hartzea espero da.



Integritatea eta legeekiko errespetua

Indarrean dagoen legeria betetzea

Erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek beren jarduerak garatzen dituzten herrialdeetako legeak, arauak eta erregelamenduak errespetatuko dituzte, legezkotasuna eta oinarritzko printzipio etikoak arriskuan jartzen dituen jardunbiderik edo jokabiderik egin gabe.

Lantegi Batuak **Gatazkan dauden Mineralen Legea** betetzen du; beraz, ez ditu talde armatuak finantzatzen eta ez du haien mesedetan jokatzeko Kongoko Errepublikako Demokratikoko eta inguruko herrialdeetako mineralen merkataritzaren bidez. Printzipio horiek bere **erakunde hornitzaileengana edo laguntzaileengana** hedatzen dira.

Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako borroka

Lantegi Batuak honako hau espero du bere **erakunde hornitzaileengandik edo laguntzaileengandik** :

- Lantegi Batuakekin dagozkion akordioak formalizatzen diren egunean, beren arduradunek eta langileek ez izatea loturarik, ez zuzenean ez zeharka, inolako abantaila desegokirekin, izan ekonomikoa edo bestelakoa, eta beren kontrol edo eragin erabakigarriaren mende dauden beste pertsona batzuek halakorik egitea saihesteko arrazoizko neurriak ezarrita izatea.
- Aitortzea eta onartzea, beren langile, ahaldun eta, oro har, beren izenean zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztien izenean, **ustelkeriaren eta kapital-zuriketaren aurkako legeak ezagutzen dituztela, eta erregistratuta eta/edo ezarrita dauden eta jarduerak egiten dituzten herrialde guztietan errespetatuko dituztela**. Lantegi Batuak ustelkeriaren eta kapital-zuriketaren aurkako edozein lege urratzea dakarren ekintzarik jakinaren gainean ez egiteko eta ez baimentzeko konpromisoa izango dute.
- Ez egitea eta eskaintzea, ez zuzenean ez zeharka, edozein pertsona fisiko edo juridikori **inolako eroskeriarik**, ordainketarik eskudirutan, gauzatan edo bestelako mozkin-eratan edozein negozio edo abantaila legez kanpo lortzeko edo mantentzeko helburuz.
- Lizitazio-prozesurik abian ez badago, Lantegi Batuak promozio- edo propaganda-opariak, gonbidapen arruntak (gizarte-usadioak eta kortesiazkoak) eta noizbehinkako detaileak bakarrik onartuko ditu (inoiz ez eskudirutan eta beti erakundean ezarritako mugen barruan, gutxi gorabehera 100 €-tik beherakoak).

Interes-gatazka

Lantegi Batuak **objektibotasuna edo leialtasuna** zalantzan jartzen duen interes-gatazka edo interes-gatazkaren itxura sortzen duen edozein jardura **saihestu behar da**.

Erakunde hornitzaile edo laguntzaile bakoitzak onartzen du bere posizioa ez duela erabiliko Lantegi Batuak kontura etekin pertsonalak eskuratzeko (bereziki, Lantegi Batuak **langileekin, familia-eta/edo adiskidetasun-harremanagatik** lotura ekonomikoa dutenekin, mesede-tratuak ekidinda); beraz, erabakiak hartzeko orduan erabateko independentzia bermatuko dute.

Balizko interes-gatazkarik egonez gero, **erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek** jarduketa-printzipio orokor hauen arabera jokatu dute:

- Deliberatzeko eta erabakiak hartzeko orduan ez dute parte hartuko, eta ez dute informazio konfidentzialik eskuratu.

- Interes-gatazkei dagokienez **garrantzitsuen** jokatzeko eta Lantegi Batuak **Betetze-kanalari** (kanalan@lantegibatuak.eus) adierazpen proaktiboa egiteko betebeharra beteko dute.

Lehiaren defentsa

Lantegi Batuak espero du bere **erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek enpresa lehiakideekin** duten **harremanean** lehia leiala errespetatuz eta **beren jardura modu etikoan** garatuz jokatzeko. Beraz, ez du inolako akordiorik egingo edo adostasunik agertuko (ez modu esplizituan ez implizituan), eta ez du merkataritza edo lehia legez kanpo edo bidegabeki murritzen duen inolako ekintzatan parte hartuko, ezta monopolioaren aurkako legeak eta lehiari buruzkoak urratzen dituen edozeinetan ere.

Irudi eta ospe korporatiboa

Erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek beren jardun profesionalean Lantegi Batuak irudia eta ospea ahalik eta kontu eta arretarik handienaz zaintzea espero da, bai haien aintzat zuzenean lan egiten duten pertsonen bai azpikontratatzeko dituzten enpresek.

Saihestu egingo Lantegi Batuak **gizartearen eta erakunde publiko edo pribatuaren aurrean duen ospea kalte dezaket** eta haren jarduerari eta/edo irudiari ondorio txarrak ekar diezazkieten **jokabideak, legea urratu ez arren**.

Konpromisoa bikaintasunarekin eta gardentasunarekin

Lantegi Batuake espero du bere **erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek bikaintasunarekiko** konpromisoa sustatzea kudeaketan; alegia, ezarritako barne-arauak eta Lantegi Batuakekin egindako akordioak errespetatzea, ematen dituzten datuak eta informazioa egiazkoak direla ziurtatzea, eta legez xedapen guztiak betetzea, bereziki pertsona juridikoen erantzukizun penalarekin lotutako delituei dagokienez.

Gardentasuna bermatuta egon behar da; hots, Lantegi Batuakekin egiten diren eragiketa eta transakzio guztietan zerga-betebehar eta Gizarte Segurantzarekiko guztiak betetzen direla ziurtatu behar da, eta Lantegi Batuaki eragiten dion edozein ordainketa irregular edo transakzio susmagarri lehenbailehen jakinarazi behar zaio.

Lantegi Batuake jakinarazitako arauak eta printzipioak betetzen direla eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatzeko egin ditzakeen bisitetan edo auditoretzetan laguntzea espero da, hala eskatuz gero, eta Lantegi Batuakekin edo haren izenean egiten ari den lanarekin lotutako edozein ezohiko ikerketa, auditoretza, ebaluazio edo eskaera jakinarazi egin behar zaio.

Laneko osasuna

Lantegi Batuake espero du **laneko segurtasun eta osasunerako arau eta politiken aplikazioa** sustatzea, lan-ingurune eta instalazio seguru eta osasungarriko bermatuko dituztenak; laneko istripuak eta gaixotasunak saihesteko prebentzio-neurriak izatea; eta osasun- eta segurtasun-arloko prestakuntza- eta trebakuntza-prozesuak egitea, bai eta langileei beharrezko baliabideak ematea ere.



Ingurumena

Lantegi Batuake ingurumenaren babesarekin konprometituta dago. Hori dela eta, erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek beren jarduerak modu arduratsuan eta indarrean dagoen legeriaren arabera egitea espero du. Halaber, **beren jarduerak ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murrizteko, energia, ura eta beste baliabide batzuk alferrik galtzea saihesteko, eta legez ezarritako esparruen barruan birziklatzeko moduan gara ditzatela** espero du, betiere biodibertsitatea errespetatuta.

Aplikatzekoa izanez gero, substantzia kimikoei eta horiek arriskurik gabe erabiltzeari buruzko Europako «REACH» araudira egoki daitezela ere espero du, baita «RoHS» araudira ere, ekipo elektriko eta elektronikoen bizitza erabilgarria amaitutakoan ingurumen-inpaktua murrizte aldera.

Datu pertsonalen babesa

Lantegi Batuake datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu; ondorioz, datuak arduraz kudeatzen dituela ziurtatzen du.

Era berean, Lantegi Batuake espero du bere **erakunde hornitzaileek edo laguntzaileek** datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako bermeekin kudeatzea eskuratzen duten edozein datu pertsonal.



Informazioaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna

Lantegi Batuakentzat, informazioaren segurtasuna funtsezkoa da (ikus hemen [politika](#)), eta erakunde hornitzaileek eta/edo laguntzaileek berarekin duten harremanaren esparruan eskuratzen duten informazio guztiaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzea espero du.

Hala, erakunde hornitzaileek eta laguntzaileek informazioa baimenik gabe eskuratzea eta galtzea edo aldatzea saihesteko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak hartu beharko dituzte. Besteak beste, informazioaren osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko barne-kontrolak ezarri beharko dituzte. Edozein segurtasun-gorabehera berehala jakinarazi beharko diote Lantegi Batuaki, arriskuak arintzeko eta beharrezko ekintza zuzentzaileak egiteko.

Konpromisoa gizarte-enpresekin, hurbiltasunarekin eta euskararekin

Lantegi Batuakerek komunitatean eragin positiboa sortzen laguntzen duten enpresekin lan egitea lehenetsiko du. Hortaz, kolektibo zaugarriak eta/edo bazterkeria-arriskuan daudenak lan-munduan txertatzea bultzatzen duten gizarte-erakundeei, bai eta aukera-berdintasuna sustatzen dutenei ere, laguntza emango die.

Gainera, Lantegi Batuakerek bereziki hartuko ditu aintzat hurbiltasunez lan egiten duten erakundeak, hurbiltasun geografikoz zein kulturez, horrela tokiko sare ekonomikoa sendotzen dutenak, hain zuzen ere. Ikuspegi horrek, ekonomia iraunkorragoa sustatzeaz gain, tokiko eragileekiko harremana indartzen laguntzen du.

Orobat, euskara errespetatzea eta sustatzea funtsezkotzat jotzen du, ingurune berezko kultur eta hizkuntz elementua den aldetik. Erakunde hornitzaileak eta laguntzaileak euskararen erabilera errespetatzera konprometitu beharko dira, eta, ahal den neurrian, sustatzera ere bai, beren komunikazioetan, informazio-materialetan, seinaleetan edo enpresarekin lotuta egiten dituzten jardueren beste edozein alderditan. Konpromiso honek identitate kulturala indartu, aniztasuna sustatu, eta hizkuntza alor profesionalean eta sozialean mantentzen eta garatzen laguntzen du.

Aurreko guztiaren helburua merkataritza-harreman arduratsuak eta iraunkorrak eraikitzea da, baina baita esparru ekonomikoaz haragoko eragin positiboa sustatzea ere, eta hala harremanetan daudenak nola lan-eremu duten ingurunea aberastuko dituzten balio etiko, kultural eta sozialean oinarritutako lankidetzak bultzatzea ere bai.

2.- Lankidetzak eta komunikazioa

Erakunde hornitzaileek eta laguntzaileek printzipio hauek betetzen laguntzea espero da:

- Beren hirugarrenek bai printzipio hauek bai Lantegi Batuakentzat edo haren izenean egiten dituzten jardueri dagokienez aplikatu beharreko arauak eta politikak betetzen dituztela bermatzea.
- Egokitzen jotzen diren ikerketetan eta auditoretzetan laguntzea, informazio oso eta egiazko guztia emanaz.
- Lantegi Batuakerek gomendatutako kontrol-neurriak ezartzen laguntzea, hornidura-katea ziurtatzeko garrantzitsua denean.
- Garatu beharreko jardueren arabera zehazten diren berariazko akordioak onartzea.
- Eta, eskatzen zaienean, printzipio hauek izenpetzea.

Agiri honekin lotutako galdera, zalantza edo gorabehera guztiak Lantegi Batuak **Jakinarazpenetarako Barne-kanala** ren bidez jakinarazi beharko dira: <https://kanalan.canaletico.app/inicio>

3.- Ez-betetzeen kudeaketa

Printzipio etiko eta arau hauek ez betetzeak eragin negatiboa izan dezake Lantegi Batuakiko harremanean, ez-betetzearen larritasunaren arabera. Izan daiteke ohartarazpen hutsa, edo erakunde hornitzaile eta/edo laguntzaile gisa deskalkifikatua izatea eta kontratu-harremana deuseztatzea, aplikatzekoak liratekeen beste lege- edo administrazio-akzio batzuk aldera batera utzi gabe.

4.- Onarpena eta eguneraketa

Lantegi Batuakereko zuzendaritzak 2025eko otsailean berrikusi eta onartu du agiri hau, eta onartu bezain laster hasi da ondorioak izaten.

Agiri honen edukia aldian-aldian eguneratu eta berrikusi da, sortzeko erabilitako prozedura berari jarraikiz eta jendartearen, oro har, eta Lantegi Batuakenean, zehazki, gertatzen diren aldaketetara egokituz. Onartutako azken bertsioa Lantegi Batuakenean webgunean (www.lantegibatuak.eus) egongo da eskuragarri).